

Euskarako diru-laguntzak

1. Helburua

Arau honen bitartez euskara ikasten ari diren adunarrei emango zaizkien diru-laguntzak arautu nahi dira.

2. Onuradunak

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileak Adunan erroldatuta egon beharko du, gutxienez laguntza eskatu baino 3 hilabete lehenago.

Ezingo dute diru-laguntzarik jaso matrikula erakunde edota enpresaren batek ordaintzen dieten ikasleek.

3. Bete beharreko baldintzak

Ikasleak gutxienez % 85eko asistentzia egiaztatu behar du.

Horrez gain, ikasturtean gutxienez azpi-maila bat gainditu behar du. Ikastaroa ikasturtekoa baina motzagoa baldin bada, ikastaroaren hasieran zehaztutako helburuak bete beharko ditu. Bi kasuetan, euskaltegiak ziurtatu beharko du ikasleak lortu duela eskatzen zaiona.

Oharra: laguntza eskatzen denetik dirua kobratu bitartean aldaketaren bat badago 2. puntuan eta 3. puntuan bete beharreko baldintzetan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

4. Laguntza jasoko duten ikastaroak

Euskara ikasteko ikastaroetan emango da laguntza. Gainera, hiru aldiz bakarrik diruz lagunduko zaio eskatzaile bakoitzari, ez nahi beste urtetan.

Horrez gain, ez dira ordainduko egonaldiak, kontuan hartuko den prezioa ikastaroena soilik izango da.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu berarekin ematen diren beste laguntzekin. Dena dela, laguntza guztien baturak inoiz ezingo du izan ikastaroaren prezioa baino altuagoa. Kasu horietan, txikitu egingo dira eman beharreko laguntzak.

5. Laguntza eskatzeko pausoak

Ikastaroan hasi aurretik, ikastaroa egiteko eta laguntza eskatzeko asmoa dagoela erakutsi beharko da udaletxean. Zein eratako ikastaroa den, zenbat kostatzen den eta zenbateko iraupena duen erakutsi beharko da, partidetan kontuan hartzeko. Ez dira aintzat hartuko ikastaroa bukatu ondoren eskatutako laguntzak.

6. Laguntzaren zenbatekoa

6.1. A1 – A2 mailak:

Ikastaroen zenbatekoaren %100 ordainduko da, gehienez ere 500 eurokoa izango da dirulaguntza.

6.2. B1 – B2 mailak:

Ikastaroen zenbatekoaren %50 ordainduko da, gehienez ere 250 eurokoa izango da dirulaguntza.

Eskatzailea langabetua, ikaslea edo jubilatua denean ikastaroaren %75 ordainduko da, gehienera 375 euro izango delarik emango den laguntza.

6.2. C1 – C2 mailak:

Ikastaroen zenbatekoaren %25 ordainduko da, baldin eta 125 euro baino gutxiago bada, hori izango baita gehienera ere emango den laguntza.

Eskatzailea langabetua, ikaslea edo jubilatua denean, ikastaroaren %50 ordainduko da, gehienera 250 euro izango delarik emango den laguntza.

7. Aurkeztu beharreko agiriak

- 1) Matrikula-ordainagiriaren fotokopia.
- 2) Euskaltegiko agiria, ikastaroaren ordu teorikoen, eskatzailearen asistentziaren eta ikasleak ikastaroaren hasieran zuen maila eta ikastaroaren bukaeran lortutako mailaren berri ematen duena.
- 3) Lan egoera, ikasle edo jubilatuta izatearen agiria.
- 4) Udalarekiko zerga betebeharretan egunean egotea.
- 5) Zinpeko aitortpena non baldintzak betetzen dituela eta eskatutako beste dirulaguntzak aitortzen diren.